



ESTADISTIKA  
ORGANOA

ORGANO  
ESTADÍSTICO

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
Zerbitzu Zuzendaritza  
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Dirección de Servicios  
Órgano Estadístico Específico

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOIA

## ERAIKUNTZAREN ETA ETXEBIZITZEN ESTADISTIKA (EEEE) 2016ko 3. hiruhilekoa

*Emitza nagusiak*

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren  
Estatistika Organo Espezifikoak*



## 1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

---

**2016ko hirugarren hiruhilekoan, emandako obra-lizentzien kopuruak gora egin du lurralde historiko guztietan, 2015eko hiruhileko berarekin alderatuta, baina behera egin du, berriz, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.**

Eraikuntzaren eta Etxebizitzaren Estatistikak (EEEE) adierazten du 2016ko hirugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek guztira 822 lizentzia eman zituztela obra handietarako. Emaita horiek 2016ko bigarren hiruhilekoan erregistratu zirenak baino nabarmen apalagoak dira (89 lizentzia gutxiago), hau da, % 9,8ko jaitsiera izan da, gutxi gorabehera. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, baina, jarduera nabarmen handitu da: 96 lizentzia gehiago onartu dira; hau da, % 13,2 gehiago.

Hiruhilekoan, Bizkaian eman dira obra handiko lizentzien % 53,6; guztira, 441 lizentzia. Haren atzetik, Araban: 203 lizentzia; hau da, lizentzia guztien % 24,7. Gainerako 178ak Gipuzkoakoak dira, hau da, kopuru osoaren % 21,7.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Arabako Lurralde Historikoan izan da beherakada handiena obra handietarako emandako lizentzia kopuruan 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean. Lurralde horretan, aintzat hartutako lizentziak % 17,1 gutxitu dira aipatu epean (42 lizentzia gutxiago). Bizkaian ere nabarmen egin dute okerrera aurreko hiruhilekoko emaitzek, % 8,7 egin baitute behera (42 lizentzia gutxiago). Gipuzkoan, emandako lizentzien kopuruan izandako jaitsiera txikiagoa izan da, % 2,7, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta: guztira, 5 lizentzia gutxiago.

Hala ere, lizentziak ematean izandako urtearteko hobekuntza ezaugarri dute lurralde historiko guztiek, nabarmenagoa izan bada ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Arabako lurraldean, guztira 2 lizentzia gehiago eman dira 2015eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 1eko gehikuntza erlatiboa gertatu da. Bizkaian, urtearteko gehikuntza askoz handiagoa da, % 17,6koa (66 lizentzia gehiago); Gipuzkoan, berriz, 2015eko hirugarren hiruhilekoaren eta 2016ko hiruhileko beraren artean, 28 lizentzia gehiago izan dira obra handietarako (hau da, aldi, % 18,7ko hobekuntza erlatiboa gertatu da).

### ***Birgaitzeko obrekin lotutako lizentziek nagusi izaten jarraitu dute***

2016ko hirugarren hiruhilekoan, emandako lizentzia-moten arabera banaketan, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetan nabarmendutako joera. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obretarako lizentziak. Gainera, obra berriko lizentzien parte-hartzea neurri handiagoan murriztu da.

Zehazki, erreferentziazko hiruhilekoan, birgaitze-obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 83,3 dira (2016ko bigarren hiruhilekoan, multzo hori % 80,8 zen, eta % 84,7 lehenengoan), % 15,5 oin berriko eraikinetarako dira (% 17,2 2016ko bigarren hiruhilekoan), eta % 1,2 eraispentarako. Kopuru absolututan, birgaitzeko 685 lizentzia eman ziren (2016ko lehen hiruhilekoan baino 51 gutxiago; hau da, % 6,9 gutxiago), 127



eraikuntza berriak egiteko (30 lizentzia gehiago; hots, % 19,1 gutxiago), eta 10 eraisteko (aurreko hiruhilekoan baino 8 gutxiago)

2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, jaitsiera adierazgarria izan da Araban oin berriko lizentzietan (-% 38,1), eta birgaitzeko obren kasuan, jaitsiera txikiagoa izan da (-% 12,6). Bizkaian, birgaitzeko lizentzietan ere adierazgarria izan da beherakada (-% 7), baina, era berean, oin berriko lizentziei dagokiena baino txikiagoa (-% 13,2). Ildo berean, Gipuzkoan joera negatiboa ikusten da obra berriari dagokionez (-% 10,3). Birgaitzeko lizentzien kasuan, ordea, igoera gertatzen den lurralde bakarra da, % 1,4koa.

### 1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldaketa absolutua eta portzentajezkoa aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta)

| OBRA HANDIKO LIZENTZIAK |                   | 2016ko 3. hiruhilekoa |              | Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa |              | Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa |             |
|-------------------------|-------------------|-----------------------|--------------|------------------------------------|--------------|-----------------------------------------------|-------------|
|                         |                   | Kopurua               | %            | Kopurua                            | Aldak. %     | Kopurua                                       | Aldak. %    |
| EAE                     | <b>Guztira</b>    | <b>822</b>            | <b>100,0</b> | <b>-89</b>                         | <b>-9,8</b>  | <b>96</b>                                     | <b>13,2</b> |
|                         | Eraikuntza berria | 127                   | 15,5         | -30                                | -19,1        | 19                                            | 17,6        |
|                         | Birgaikuntza      | 685                   | 83,3         | -51                                | -6,9         | 81                                            | 13,4        |
|                         | Eraistea          | 10                    | 1,2          | -8                                 | -44,4        | -4                                            | -28,6       |
| Araba                   | <b>Guztira</b>    | <b>203</b>            | <b>100,0</b> | <b>-42</b>                         | <b>-17,1</b> | <b>2</b>                                      | <b>1,0</b>  |
|                         | Eraikuntza berria | 26                    | 12,8         | -16                                | -38,1        | -3                                            | -10,3       |
|                         | Birgaikuntza      | 174                   | 85,7         | -25                                | -12,6        | 5                                             | 3,0         |
|                         | Eraistea          | 3                     | 1,5          | -1                                 | -25,0        | 0                                             | 0,0         |
| Bizkaia                 | <b>Guztira</b>    | <b>441</b>            | <b>100,0</b> | <b>-42</b>                         | <b>-8,7</b>  | <b>66</b>                                     | <b>17,6</b> |
|                         | Eraikuntza berria | 66                    | 15,0         | -10                                | -13,2        | 26                                            | 65,0        |
|                         | Birgaikuntza      | 371                   | 84,1         | -28                                | -7,0         | 43                                            | 13,1        |
|                         | Eraistea          | 4                     | 0,9          | -4                                 | -50,0        | -3                                            | -42,9       |
| Gipuzkoa                | <b>Guztira</b>    | <b>178</b>            | <b>100,0</b> | <b>-5</b>                          | <b>-2,7</b>  | <b>28</b>                                     | <b>18,7</b> |
|                         | Eraikuntza berria | 35                    | 19,7         | -4                                 | -10,3        | -4                                            | -10,3       |
|                         | Birgaikuntza      | 140                   | 78,7         | 2                                  | 1,4          | 33                                            | 30,8        |
|                         | Eraistea          | 3                     | 1,7          | -3                                 | -50,0        | -1                                            | -25,0       |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

Urtearteko bilakaerari buruzko datuek Bizkaian oin berriko lizentziak ematean bilakaera hobea izan dela erakusten dute, gorakada funtsezkoa izan delako (% 65). Araban eta Gipuzkoan, berriz, beherakada handia izan da urtearteko kopuruetan: -% 10,3 bi lurraldeetan. EAE osoan, obra berrirako lizentzien urtearteko igoera % 17,6koa izan da, eta, guztira, obra handiko 19 lizentzia gehiago eman dira.



Birgaitzeko lizentziek gora egin dute 2015eko hirugarren hiruhilekoaren eta 2016koaren artean, bai EAEn (+% 13,4), bai hiru lurralde historikoetan. Igoerak lotura du nagusiki Gipuzkoan izandako gorakada handiarekin (+% 30,8), baina Bizkaian ere oso adierazgarria izan da (+% 13,1). Gehikuntza askoz motelagoa da Araban: +% 3.

2016ko hirugarren hiruhilekoan, oin berriko eta birgaitzeko lizentzien zatiak, emandako lizentzia guztiekin alderatuta, banaketa desberdina dauka, zer lurralde historiko aztertzen den. Araban, oin berriak pisu erlatibo txikiagoa dauka (% 12,8) beste lurraldeetan baino: emandako obra handiko lizentzia guztien % 15 da Bizkaian eta % 19,7 Gipuzkoan. Horren ondorioz, eragina birgaitzeko obra handiko lizentziek daukatenaren aurkakoa da; izan ere, Gipuzkoan birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 78,7 dira, baina proportzioa % 84,1era iristen da Bizkaian, eta % 85,7ko gehienekora Araban.

**Metatutako urtearteko datuek argi uzten dute EAEn aurrera egin dela lizentziak emateari dagokionez 2016ko hirugarren hiruhilekoan, baina hazkunde-erritmoen moteltze-testuinguruan.**

2015eko laugarren hiruhilekoaren eta 2016ko hirugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak zenbatuz gero, aurreko urteko hiruhileko beretako urteko kopuru metatuarekin alderatuta (2014ko laugarren hiruhilekotik 2015eko hirugarren hiruhilekora), 190 lizentzia gehiago izan dira, hau da, aldera daitekeen 2015eko aldian baino % 6,7 gehiago. Igoera hori zertxobait handiagoa da eraikuntza berriko lizentzietan; zehazki, % 7,8ko igoera izan da EAEn (35 lizentzia gehiago), eta % 6,6koa birgaitzeko direnen kasuan (154 lizentzia gehiago). Soil-soilik eraistekoak diren obretarako lizentzien kopuruan, igoera txikia gertatu da, 56 lizentzia eman baitira, lehengo 55en aldean (+1,8).

Kopuru horiek 2016ko bigarren hiruhilekoari dagozkion urtearteko datu metatuekin alderatuta, igoera-erritmoak moteldu egiten direla adierazten dute aurkeztutako datuek. Hartara, birgaitzeko obren lizentzien kasuan, urtearteko igoera-erritmoa 2016ko bigarren hiruhilekoko % 10,9tik 2016ko hirugarren hiruhilekoko % 6,6ra aldatu da. Eraikuntza berrietan, berriz, igoera-erritmoa gehixeago moteldu da: 2016ko bigarren hiruhilekoko % 12,8tik 2016ko hirugarren hiruhilekoko % 7,8ra. Hala ere, ehuneko horrek argi eta garbi gaintitzen du 2016ko lehen hiruhilekoan izandakoa: % 2,9.

***Hiru lurraldeetan, 2016ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaerak dinamika, oro har, ona dela adierazten du, nahiz eta Bizkaian oin berriak oraindik ere bilakaera negatiboa izan.***

Urtearteko datu metatuak lurralde historikoen arabera aztertuta, ikusten da dinamika desberdinak daudela EAEn. Alde batetik, Gipuzkoan nabarmen egin da aurrera azken urtean metatutako lizentzien kopuruan, aurreko urteko epe berarekin alderatuta. Aurrerakada hori eraikuntza berrian oinarritzen da batez ere, emandako lizentzien



kopurua % 23,3 handitu baita, eta, horrekin batera, birgaitzeko lizentzietan ere igoera adierazgarria izan da, motelagoa izan arren (+% 5,7).

Oro har, lizentzien kopuruak % 10,9 egin du gora Gipuzkoan urtetik urtera (65 lizentzia gehiago eman dira). Guztiaz ere, gehikuntza horrek adierazten du igoera moteldu egin dela, kontuan hartzen baditugu honako ehuneko hauek: % 18,2 2015. urtearen amaieran; % 25,2 2016ko lehen hiruhilekoan; eta % 16,3 2016ko bigarren hiruhilekoan.

## 2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urte batetik besterako aldaketa, balio absolututan eta ehunekotan)

| OBRA HANDIKO LIZENTZIAK |                   | 4. hiruhilekoa 2015<br>-<br>3. hiruhilekoa 2016 |              | 4. hiruhilekoa 2014<br>-<br>3. hiruhilekoa 2015 |              | Urtebetean<br>metatutakoaren<br>aldaketa, aurreko<br>urteko aldi<br>berdinarekiko |             |
|-------------------------|-------------------|-------------------------------------------------|--------------|-------------------------------------------------|--------------|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------|
|                         |                   | Kopurua                                         | %            | Kopurua                                         | %            | Kopurua                                                                           | Aldak. %    |
| EAE                     | <b>Guztira</b>    | <b>3.042</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>2.852</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>190</b>                                                                        | <b>6,7</b>  |
|                         | Eraikuntza berria | 485                                             | 15,9         | 450                                             | 15,8         | 35                                                                                | 7,8         |
|                         | Birgaikuntza      | 2.501                                           | 82,2         | 2.347                                           | 82,3         | 154                                                                               | 6,6         |
|                         | Eraistea          | 56                                              | 1,8          | 55                                              | 1,9          | 1                                                                                 | 1,8         |
| Araba                   | <b>Guztira</b>    | <b>767</b>                                      | <b>100,0</b> | <b>732</b>                                      | <b>100,0</b> | <b>35</b>                                                                         | <b>4,8</b>  |
|                         | Eraikuntza berria | 134                                             | 17,5         | 112                                             | 15,3         | 22                                                                                | 19,6        |
|                         | Birgaikuntza      | 621                                             | 81,0         | 599                                             | 81,8         | 22                                                                                | 3,7         |
|                         | Eraistea          | 12                                              | 1,6          | 21                                              | 2,9          | -9                                                                                | -42,9       |
| Bizkaia                 | <b>Guztira</b>    | <b>1.613</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>1.523</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>90</b>                                                                         | <b>5,9</b>  |
|                         | Eraikuntza berria | 208                                             | 12,9         | 222                                             | 14,6         | -14                                                                               | -6,3        |
|                         | Birgaikuntza      | 1.383                                           | 85,7         | 1.278                                           | 83,9         | 105                                                                               | 8,2         |
|                         | Eraistea          | 22                                              | 1,4          | 23                                              | 1,5          | -1                                                                                | -4,3        |
| Gipuzkoa                | <b>Guztira</b>    | <b>662</b>                                      | <b>100,0</b> | <b>597</b>                                      | <b>100,0</b> | <b>65</b>                                                                         | <b>10,9</b> |
|                         | Eraikuntza berria | 143                                             | 21,6         | 116                                             | 19,4         | 27                                                                                | 23,3        |
|                         | Birgaikuntza      | 497                                             | 75,1         | 470                                             | 78,7         | 27                                                                                | 5,7         |
|                         | Eraistea          | 22                                              | 3,3          | 11                                              | 1,8          | 11                                                                                | 100,0       |


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

Araban, 35 lizentzia gehiago egon dira, eta horrek esan nahi du obrarako lizentzien % 4,8ko igoera metatua izan dela urtetik urtera. Hala ere, lurralde horretan alde handiak daude lizentzien kopuruaren bilakaeran lizentzia motaren arabera. Birgaitzeko lizentziek urterarteko % 3,7ko igoera izan dute, baina oin berriko lizentzietan nabarmen igo da emandakoen kopurua (+% 19,6), eta obra berriko 22 lizentzia gehiago eman dira aurreko erreferentziazko aldian baino (134 eta 112, hurrenez hurren). Araban, ordea, eraisteko baino ez diren lizentzien kopurua asko jaitsi da (-% 42,9), 21 lizentziatik 12ra aztertutako aldian.

Gipuzkoan bezala, Araban ere behera egin du 2016ko hiru hiruhilekoan lizentzien urtearteko igoera-eritmo metatua aurreko hiruhilekoko zenbatekoekin alderatuta. Hartara, 2016ko bigarren hiruhilekoko urteko +% 7 metatutik oraingo hiruhilekoko % 4,8ra aldatu da.

Bizkaian, bestalde, emandako lizentziak Araban emandakoak baino gehixeago izan dira (+% 5,9). Birgaitzeko obretarako lizentziek urtearteko % 8,2ko igoera izan dute, baina hobetze-prozesu horren aldean, nabarmen murriztu da oin berriko eraikuntza, -% 6,3. Oro har, urtetik urtera, 90 lizentzia gehiago eman dira, eraikuntza berriko lizentzietan 14 gutxiago izan arren.

### 1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoen eta hiruhilekoen arabera. EAE. 1998-2016



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

Bizkaian, 2016ko hirugarren hiruhilekoko urteko datu metatuek, ordea, argi uzten dute jaitsiera-prozesua moteldu dela eraikuntza berriaren kasuan. Hartara, 2016ko lehen hiruhilekoan -% 27,3ko jaitsiera izan ondoren, bigarrenengoan -% 7,1ekoa izan da, eta -% 6,3koa hirugarrenengoan. Birgaitzeari dagokionez, ordea, emaitzek hobera egin dute aurreko urtearekin alderatuta, baina igoera txikiagoa izan da, 2016ko bigarren hiruhilekoan % 13,8koa izan ondoren % 8,2koa izan baita hirugarrenean. Moteltze hori gorabehera, lurralde historikoen artean oraindik ere Bizkaian da handiena igoera hori, birgaitzeko lizentziei dagokienez.



## 2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZERTAN ERABILTZEKO IZAN DIREN

---

**2016ko hirugarren hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako obra handiko lizentziak nahiz bizitegi-erabilerarako ez zirenak gehiago izan dira aurreko urteko hiruhileko berean baino, baina aurreko hiruhilekoan baino gutxiago. Bizitegiatarako ez diren lizentziei dagokienez, bi aldietan industria- eta energia-sektorea izan da hobera egin duen bakarra.**

2016ko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko 812 lizentzia eman ziren. Horien xedea oin berriko eraikinak egitea edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzea izan zen. Lizentzia horietako gehienak (602, hau da, guztizkoaren % 74,1) bizitegi-erabilerarako proiektuekin lotu ziren, eta gainerako 210 lizentziak, berriz, bizitegi-erabilerarako ez ziren proiektuekin<sup>1</sup>.

2016ko hirugarren hiruhilekoan, bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentzien xede sektorialari dagokionez, zerbitzu-erabilerara bideratuen nagusitasuna nabarmentzen da (guztien % 60,5). Industria- eta energia-sektorerara bideratuak % 29,5 dira, eta gainerakoa, % 10, lehen sektoreko jardueretarako dira.

Kontuan hartuta zer bilakaera izan duten lizentziek 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean, ikusten da % 7,5 gutxitu direla bizitegi-erabilerarako proiektuei lotuta emandakoak. Jarduerak neurri handiagoan egin du behera bizitegi-erabilerarako ez diren proiektuei dagokienez (–% 13,2).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematean, jaitsiera nabarmena gertatu da 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean (–% 13,2), eta jaitsiera hori lehen sektorean eta zerbitzu-sektorean izandakoei lotuta dago (–% 38,2 eta –% 21,1 hurrenez hurren). Industria- eta energia-sektorean, ordea, jarduerak gora egin du (+% 31,9).

2015eko lehen hiruhilekoaren eta 2016koaren arteko alderaketa positiboa da bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 19) eta bizitegiatarako ez direnei dagokienez (% 1,9), azken kasu horretan askoz neurri txikiagoan izan arren.

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziak ematearen barruko dinamikari dagokionez, 2015eko hirugarren hiruhilekoaren eta 2016koaren artean, ikusten da igoera industria- eta energia-sektorean izandako hobekuntzari (+% 59) soilik dagoela lotuta. Gainerako sektoreetan, ordea, aldaketa negatiboak daude: –% 12,5 lehen sektorean eta –% 11,2 zerbitzu-sektorean.

---

<sup>1</sup> Txostenaren atal honetan egiten den analitik kanpo geratu dira eraisteko obren lizentziak; izan ere, horiek ez dute inolako erabilerarik (eraikuntza ondoren egiten bada, lizentziaren eskaera berria izapidetu beharko da). Era berean, kontuan hartu behar da bi erabileratarako diren eraikuntzak (bizitegi-erabilera eta bestelakoa) bizitegi-erabileraren barruan sailkatzen direla.



### 3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburua kontuan hartuta. 2016ko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urte batetik besterako aldaketa, balio absolututan eta ehunekotan)

| OBRA HANDIKO LIZENTZIAK                              | 2016ko 3. hiruhilekoa |              | Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa |             | Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa |             |
|------------------------------------------------------|-----------------------|--------------|------------------------------------|-------------|-----------------------------------------------|-------------|
|                                                      | Kopurua               | %            | Kopurua                            | Aldak. %    | Kopurua                                       | Aldak. %    |
| <b>Guztira</b>                                       | <b>812</b>            | <b>100,0</b> | <b>-81</b>                         | <b>-9,1</b> | <b>100</b>                                    | <b>14,0</b> |
| Bizitegiak                                           | 602                   | 74,1         | -49                                | -7,5        | 96                                            | 19,0        |
| Bestelako erabilerak                                 | 210                   | 25,9         | -32                                | -13,2       | 4                                             | 1,9         |
| - Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 21                    | 10,0         | -13                                | -38,2       | -3                                            | -12,5       |
| - Industria eta energia                              | 62                    | 29,5         | 15                                 | 31,9        | 23                                            | 59,0        |
| - Zerbitzuak                                         | 127                   | 60,5         | -34                                | -21,1       | -16                                           | -11,2       |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

**Urtearteko kopuru metatuetan, hobera egiten du obretarako lizentzien emateak, erabileraren xedea bizitegia izan zein ez. Hala ere, beheranzko joera berretsi egin da lehen sektorean.**

Metatutako urtearteko adierazleen ikuspegitik, bilakaera ona izango dela ematen du oraindik ere. Hartara, 2015eko hirugarren hiruhilekora arteko urtearteko kopuru metatuak (2014ko laugarren hiruhilekotik 2015eko hirugarrenera artekoak) 2016ko hiruhileko berari dagozkionekin (2015eko laugarren hiruhilekotik 2016ko hirugarrenera artekoak) alderatzean, datuek berriz adierazten dute hobekuntza izan dela bizitegi-erabilerarako ematen diren lizentzietan (% 7,7ko igoera), bai eta, neurri txikiagoan, bizitegi-erabilerarako ez direnetan ere (+% 4,4). Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzietan, igoera zerbait egonkortu da, igoera 2016ko bigarren hiruhilekoko % 4,1etik hiruhileko honetako % 4,4ra aldatu baita. Bizitegi-erabilerarako lizentzien igoerak, ordea, indarra galdu du, esparru horretan 2016ko bigarren hiruhilekoko % 14,2ko urtearteko igoera metatutik hiruhileko honetako % 7,7ra aldatu baita.

Bizitegi-erabilerarako ez diren emandako obra-lizentzietan, 2016ko hirugarren hiruhilekoan metatutako urteko datuek adierazten dute lizentzien emate-bilakaerak hobera egin duela industria- eta energia-sektorean (+% 4,1) eta, neurri handiagoan, zerbitzu-sektorean (+% 8,8). Bilakaerarik txarrena lehen sektoreari dagokio, lizentzien emate-erritmoa % 12,6 gutxitu baita. Sektore horretan, oso antzeko urtearteko aldaketa negatiboa gertatua zen 2016ko lehen hiruhilekoetan (-% 12,7 eta -% 14,4 2016ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan, hurrenez hurren).



#### 4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburua kontuan hartuta. 2016ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urte batetik besterako aldaketa, balio absolututan eta ehunekotan)

| OBRA HANDIKO LIZENTZIAK                              | 4. hiruhilekoa<br>2015<br>-<br>3. hiruhilekoa<br>2016 |              | 4. hiruhilekoa<br>2014<br>-<br>3. hiruhilekoa<br>2015 |              | Urtebeteen<br>metatutakoaren<br>aldaketa, aurreko<br>urteko aldi<br>berdinarekiko |            |
|------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|--------------|-------------------------------------------------------|--------------|-----------------------------------------------------------------------------------|------------|
|                                                      | Kopurua                                               | %            | Kopurua                                               | %            | Kopurua                                                                           | Aldak. %   |
| <b>Guztira</b>                                       | <b>2.986</b>                                          | <b>100,0</b> | <b>2.797</b>                                          | <b>100,0</b> | <b>189</b>                                                                        | <b>6,8</b> |
| Bizitegiak                                           | 2.174                                                 | 72,8         | 2.019                                                 | 72,2         | 155                                                                               | 7,7        |
| Bestelako erabilerak                                 | 812                                                   | 27,2         | 778                                                   | 27,8         | 34                                                                                | 4,4        |
| - Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza | 104                                                   | 12,8         | 119                                                   | 15,3         | -15                                                                               | -12,6      |
| - Industria eta energia                              | 203                                                   | 25,0         | 195                                                   | 25,1         | 8                                                                                 | 4,1        |
| - Zerbitzuak                                         | 505                                                   | 62,2         | 464                                                   | 59,6         | 41                                                                                | 8,8        |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

### 3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN DIREN KONTUAN HARTUTA

**Azken hiruhilekoan, oin berriko etxebizitzaren eraikuntza-aurreikuspenak okerrera egin du lurralde historiko guztietan. Hala ere, Araban izan ezik, urtearteko dinamika ona dute.**

2016ko hirugarren hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerarako obra handiko 602 lizentziek berekin dakartzate 1.173 etxebizitzarekin (aurreko hiruhilekoan baino 472 gutxiago) zerikusia duten jarduketak. Etxebizitza horietatik 920 oin berriko jarduketekin lotuta daude, eta gainerako 253 etxebizitza, berriz, birgaitzeko prozesuan daudenekin<sup>2</sup>.

Zehaztu behar da tartean dauden oin berriko etxebizitzaren bolumenean, hiruhilekoen artean, oszilazio esanguratsuak egon daitezkeela, hiruhileko batean edo bestean ematen diren sustapen kopuru handien arabera. Aurreko hori kontuan hartuta, jaitsiera handia izan da 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitza kopuruan (-% 35). 2015eko hirugarren hiruhilekoko

<sup>2</sup> Birgaitu beharreko etxebizitzak zenbatzean ez dira kontuan hartzen eraikin berean dauden etxebizitzak, baldin eta birgaitzeko obrak eraikineko elementu komunetan bakarrik egin behar badira. Birgaitu beharreko etxebizitzak zenbatzean, hauek bakarrik hartzen dira kontuan: osorik birgaitu beharreko eraikinak edo familia bakarreko etxebizitzak; edo zenbait etxebizitza dituzten eraikinak, baldin eta barruko tarte (etxebizitza) batean edo batzuetan egin behar badira birgaitzeko obrak (azken kasu horretan, kontuan hartzen da zenbat etxebizitza geratu diren etxebizitzak banatzeko edo batzeko prozesuen ondorioz).



zenbatekoa 2016ko hiruhileko berekoarekin alderatzen bada, berriz, ikusten da funtsezko hobekuntza gertatu dela oin berriko etxebizitzaren aurreikuspenean (+43,1).

Egoera on samarra da 2016ko hirugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusita dauden etxebizitzaren kopuruan. Hala, aurreikusitako ekintzen kopurua % 10 handitu da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta % 15,5 2015eko hiruhileko berari dagokionez.

2016ko hirugarren hiruhilekoan, Bizkaia da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea, eta, guztira, 764 etxebizitza daude jarduketa horiei lotuta; haietako % 85,3 oin berrikoak dira (652 etxebizitza). Lurralde horretan, nabarmen egin du behera lotuta dauden oin berriko etxebizitzaren kopuruak aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (–% 25,6), baina gora egin du 2015eko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 83,1). Birgaitze-jarduketari lotutako etxebizitzaren kopuruari dagokionez, ordea, kopuruak gora egin du 2016ko bigarren hiruhilekoaren aldean (+% 3,7) eta 2015eko hirugarren hiruhilekoaren aldean (+% 13,1).

#### 5. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldaketa absolutua eta portzentajezkoa aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta)

| AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA |                   | 2016ko 3. hiruhilekoa |              | Aurreko hiruhilekoarekiko aldaketa |              | Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa |              |
|------------------------------------|-------------------|-----------------------|--------------|------------------------------------|--------------|-----------------------------------------------|--------------|
|                                    |                   | Kopurua               | %            | Kopurua                            | Aldak. %     | Kopurua                                       | Aldak. %     |
| EAE                                | <b>Guztira</b>    | <b>1.173</b>          | <b>100,0</b> | <b>-472</b>                        | <b>-28,7</b> | <b>311</b>                                    | <b>36,1</b>  |
|                                    | Eraikuntza berria | 920                   | 78,4         | -495                               | -35,0        | 277                                           | 43,1         |
|                                    | Birgaikuntza      | 253                   | 21,6         | 23                                 | 10,0         | 34                                            | 15,5         |
| Araba                              | <b>Guztira</b>    | <b>125</b>            | <b>100,0</b> | <b>-73</b>                         | <b>-36,9</b> | <b>-50</b>                                    | <b>-28,6</b> |
|                                    | Eraikuntza berria | 67                    | 53,6         | -91                                | -57,6        | -47                                           | -41,2        |
|                                    | Birgaikuntza      | 58                    | 46,4         | 18                                 | 45,0         | -3                                            | -4,9         |
| Bizkaia                            | <b>Guztira</b>    | <b>764</b>            | <b>100,0</b> | <b>-220</b>                        | <b>-22,4</b> | <b>309</b>                                    | <b>67,9</b>  |
|                                    | Eraikuntza berria | 652                   | 85,3         | -224                               | -25,6        | 296                                           | 83,1         |
|                                    | Birgaikuntza      | 112                   | 14,7         | 4                                  | 3,7          | 13                                            | 13,1         |
| Gipuzkoa                           | <b>Guztira</b>    | <b>284</b>            | <b>100,0</b> | <b>-179</b>                        | <b>-38,7</b> | <b>52</b>                                     | <b>22,4</b>  |
|                                    | Eraikuntza berria | 201                   | 70,8         | -180                               | -47,2        | 28                                            | 16,2         |
|                                    | Birgaikuntza      | 83                    | 29,2         | 1                                  | 1,2          | 24                                            | 40,7         |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

Gipuzkoan, bestalde, 284 etxebizitzatarako jarduketak daude 2016ko hirugarren hiruhilekoan. Oin berriko 201 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta bilakaera negatiboa da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (–% 47,2), baina positiboa 2015eko hiruhileko berari dagokionez (+% 16,2). Birgaitzeko jarduerari dagokionez, lurralde horrek pisu handixeagoa hartzen du 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean



izandako jardueran (+% 1,2), eta handiagoa urtearteko dinamikaren ikuspegitik (+% 40,7).

Arabian, azkenik, 125 etxebizitzatarako aurreikusi dira lanak. Jaitsiera handia ikusten da 2016ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean aurreikusitako etxebizitza kopuruan (-% 36,9), oin berriari lotutako ekintzak gutxitzearekin zerikusia duena (-% 57,6, urtearteko bilakaerara hedatzen den joera negatiboarekin, -% 41,2 jaitsita). Bestalde, birgaitze-jarduketei lotutako etxebizitzak % 4,9 gutxitu dira 2015eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, baina, birgaitzeko jarduketetan, etxebizitzetarako aurreikusitako emateak nabarmen egiten du gora aurreko hiruhilekoaren aldean (+% 45)

**Urtearteko zenbateko metatuen ikuspegitik, emaitzek hobera egiten dute Araban eta Bizkaian eraikuntza berriko etxebizitzari dagokionez. Gipuzkoan, birgaitzeari lotutako jarduketek soilik egiten dute aurrera, EAEko beste lurraldeetan ikusitako jaitsiera handien aldean.**

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruen artean oszilazio esanguratsuak daudenez, komeni da analisia emaitzen urteko dinamikan oinarritzea. Hala arituta, ikusten da 2016ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako bizitegi-xedeetarako urteko jarduketek aurreikusitako 4.455 etxebizitzari eragiten dietela. Horrek esan nahi du % 2,2ko igoera izan dela (97 etxebizitza gehiago) 2015eko hirugarren hiruhilekoan metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Gorakada hori oin berriarekin zerikusia duten jarduketei lotuta dago nagusiki, eragindako etxebizitzetan % 2,8ko igoera izanik (+97 etxebizitza). Birgaitze-jarduketei dagokionez, ordea, kopuruak egonkortu egin dira (+% 0,0, bi aldietan aurreikusitako jarduketek eragindako etxebizitzaren kopura bera izanda).

Baina dinamika orokorra lurralde bakoitzean izandako prozesuetan dauden desberdintasun handiek baldintzatzen dute. Ildo horretan, Gipuzkoaren ezaugarria da birgaitzearen esparruan izandako bilakaera ona; izan ere, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, 2016koaren aldean, urteko metatuak gora egin duen EAEko lurralde bakarra da (+% 21,3). Araban eta Bizkaian, berriz, birgaitze-ekintzetan urteko jaitsiera metatu handia gertatu da 2016ko hirugarren hiruhilekoan (-% 7,6 Araban eta -% 8,4 Bizkaian).

Lurraldeen arteko aldeak handiak izan dira, halaber, etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jardueretan. Kasu honetan, Gipuzkoan jarduerak behera egin du, % 8,6 jaitsi baita 2016ko hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko kopuru metatua, 2015eko hiruhileko berarekin alderatuta. Araban eta Bizkaian, berriz, gora egin dute oin berriko jarduketek aurreko urtearen aldean. Gorakada hori oso adierazgarria da Araban: hiruhileko honetan, igoera % 50,2koa izan da. Bizkaian izandako igoera (% 4,6) txikiagoa da, baina, era berean, adierazgarria.

Metatutako urteko bilakaera alderatzen bada EAE osoan aurreko hiruhilekoetan izandako datuekin, ikuspuntu orokorrek adierazten dute igoera moteldu egin dela, 2016ko lehen hiruhilekoko % 4,1etik bigarreneko % 2,4ra eta hiruhileko honetako % 2,2ra aldatu delako. Balio absolututan, ordea, aurreikusitako jarduketak dituzten



etxebizitzaren kopurua nabarmen handitu da: metatutako etxebizitzak 3.787 ziren 2016ko lehen hiruhilekoan, 4.144 urte horretako bigarren hiruhilekoan, eta 4.455 hirugarrenengoan.

## 6. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urte batetik besterako aldaketa, balio absolututan eta ehunekotan)

| AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA |                   | 4. hiruhilekoa 2015<br>-<br>3. hiruhilekoa 2016 |              | 4. hiruhilekoa 2014<br>-<br>3. hiruhilekoa 2015 |              | Urtebetean metatutakoaren aldaketa, aurreko urteko aldi berdinarekiko |             |
|------------------------------------|-------------------|-------------------------------------------------|--------------|-------------------------------------------------|--------------|-----------------------------------------------------------------------|-------------|
|                                    |                   | Kopurua                                         | %            | Kopurua                                         | %            | Kopurua                                                               | Aldak. %    |
| EAE                                | <b>Guztira</b>    | <b>4.455</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>4.358</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>97</b>                                                             | <b>2,2</b>  |
|                                    | Eraikuntza berria | 3.557                                           | 79,8         | 3.460                                           | 79,4         | 97                                                                    | 2,8         |
|                                    | Birgaikuntza      | 898                                             | 20,2         | 898                                             | 20,6         | 0                                                                     | 0,0         |
| Araba                              | <b>Guztira</b>    | <b>547</b>                                      | <b>100,0</b> | <b>440</b>                                      | <b>100,0</b> | <b>107</b>                                                            | <b>24,3</b> |
|                                    | Eraikuntza berria | 365                                             | 66,7         | 243                                             | 55,2         | 122                                                                   | 50,2        |
|                                    | Birgaikuntza      | 182                                             | 33,3         | 197                                             | 44,8         | -15                                                                   | -7,6        |
| Bizkaia                            | <b>Guztira</b>    | <b>2.410</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>2.360</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>50</b>                                                             | <b>2,1</b>  |
|                                    | Eraikuntza berria | 1.996                                           | 82,8         | 1.908                                           | 80,8         | 88                                                                    | 4,6         |
|                                    | Birgaikuntza      | 414                                             | 17,2         | 452                                             | 19,2         | -38                                                                   | -8,4        |
| Gipuzkoa                           | <b>Guztira</b>    | <b>1.498</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>1.558</b>                                    | <b>100,0</b> | <b>-60</b>                                                            | <b>-3,9</b> |
|                                    | Eraikuntza berria | 1.196                                           | 79,8         | 1.309                                           | 84,0         | -113                                                                  | -8,6        |
|                                    | Birgaikuntza      | 302                                             | 20,2         | 249                                             | 16,0         | 53                                                                    | 21,3        |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2016ko 3. hiruhilekoa

EAE osoan, aurreko datuek dinamika desberdina erakusten dute eraikuntza berrian eta birgaikuntzan. Birgaitze-esparruan, metatutako urteko bilakaeran igoeraren jaitsiera jarraitua gertatu da egonkortasunera iritsi arte (+% 21,7 2016ko lehen hiruhilekoan; +% 9,1 bigarrenengoan; eta % 0,0 hirugarrenengoan). Balio absolututan, berriz, dinamika horrek jarduketaren egonkortze hutsa dakar berekin, inplikaturako 864 etxebizitza eta 898 etxebizitza arteko aldaketekin kontuan hartutako urteko aldietan.

Eraikuntzari berriari dagokionez, ordea, hobetze-ildo argia ikusten da, bai erlatiboa, bai absolutua, metatutako urteko lizentzietan. Hartara, balio erlatibotan, 2016ko lehen hiruhilekoan urtearteko jaitsiera-erritmoa -% 0,3 izan zen, baina maila positiboak izan dira bigarrenengoan eta hirugarrenengoan: +% 0,7 eta +% 2,8, hurrenez hurren. Balio



absolututan, metatutako jarduerak urteko 2.902 etxebizitzari eragin zien 2016ko lehen hiruhilekoan, 3.280ri bigarreanean eta 3.557ri hirugarreanean.

Eraikuntza berrian, Bizkaiak du aldaketarik onena, eta, 2016an lehenengo aldiz, urtearteko igoera metatu positiboko erritmoa izan du urteko hirugarren hiruhilekoan (–% 28,4 2016ko lehen hiruhilekoan; –% 1,2 bigarrengoan; eta +% 4,6 hirugarreanean). Gipuzkoak, ordea, dinamikarik txarrena du, elkarren ondoko bi hiruhilekotan igoera-erritmoak negatiboak izan direlako (–% 8,6 2016ko hirugarreanean, bigarreanean izandako –% 11,6aren azpitik, baina oso urrun urteko lehen hiruhilekoko % 52,6 positibotik).



## ALDERDI METODOLOGIKOAK

---

Eraikuntzaren eta Etxebizitzen Estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta dagokion informazioa EAEko 251 udalek hilero igortzen dute. Hilero bidalitako informazioa udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta Udalak, etxebizitza babestuak sustatzeko, lurzorua erosteari buruzkoa ere. Urtero, ordea, Udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa jasotzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den jakitea da Eraikuntzaren eta Etxebizitzen Estatistikaren helburu orokorra. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (eraikuntza berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

### **Definizioak:**

**Obra handia egiteko lizentzia:** Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko, eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

**a. Oin berriko obra:** Obra handietan, eraikin berri bat egiteko gauzatzen dena da, aurretik beste eraikin bat guztiz eraitsita zein ez. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

**b. Birgaitzeko obra:** Obra handia da, baina aurrekoak ez bezala, ez dakar berekin eraikin berria egitea, baizik eta egindako eraikinen gainean jarduten da, aldeztu aurretik zatizko eraispenak eginda edo egin gabe.

Obraren xede den eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin behar da. Proiektu tekniko horrek lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentuetan bete beharreko baldintza bat izan behar du, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Bi motakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra: Eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren gainean okupatutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean, eta kasu horretan, lurzorian azalera gehiago erantsen da.



- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra: Obra mota honetan, azalera eraikia ez da aldatzen, baina eraikinean aldaketa batzuk gertatzen dira, egiturazko elementuren bati eragiten diotenak, edo aurrez ez zegoen horniduraren bat ezartzen da.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak zenbait esparrutakoak izan daitezke. Ohikoenak zehazten dira:

- Eraikinak handitzea, horretarako haien teilatu-jasotzea egin edo azalera gehiago okupatu behar izanez gero.
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinaren egiturazko aldaketen premia duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk bereiztea edo bateratzea.
- Sail eskudunak dauzkaten konplexutasun teknikoagatik, ezaugarri teknikoengatik edo garrantzi ekonomikoagatik zentzuz obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

**c. Eraispen-obra:** Eraikin oso bat edo eraikin baten zati bat eraistea da.



## ERAIKUNTZAREN ETA ETXEBIZITZEN ESTATISTIKA (EEEE), 2016ko 3. hiruhilekoa

### EMAITZA NAGUSIAK

#### AURKIBIDEA

|                                                                                                      |    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK .....                                                                     | 2  |
| 2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZERTAN ERABILTZEKO IZAN DIREN .....                              | 7  |
| 3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN DIREN KONTUAN HARTUTA..... | 9  |
| ALDERDI METODOLOGIKOAK .....                                                                         | 14 |

#### Taulen aurkibidea

|                                                                                                                                                     |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| 1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoa .....                             | 3  |
| 2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak.....    | 5  |
| 3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburua kontuan hartuta. 2016ko 3. hiruhilekoa.....                                                     | 8  |
| 4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburua kontuan hartuta. 2016ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .....                          | 9  |
| 5. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoa .....                          | 10 |
| 6. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2016ko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak..... | 12 |

#### Grafikoen aurkibidea

|                                                                                                                                |   |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|
| 1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoen eta hiruhilekoen arabera. EAE. 1998-2016 ..... | 6 |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---|

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistikarako Organo Berezia  
Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 93 57; Faxe: +34-945-01 63 40

WEBGUNEAK: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/>

E-posta: [estadistica-eps@euskadi.eus](mailto:estadistica-eps@euskadi.eus)